

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2019ko ekainaren 18an aurkeztuko du

Artea ikasbide

Babeslea:



***Artea ikasbide* erakusketa berria Guggenheim Bilbao Museoan**

- Noiz: ekainaren 18tik irailaren 15era
 - Non: Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza gelan
 - Babeslea: BBK
-
- Museoko Hezkuntza gelan ikusgai egongo diren artelan originalak sortu dituzte EAEko bederatzi ikastetxetako (publikoak eta itunpekoak) 6 eta 12 urte bitarteko 209 ikaslek.
 - 1998an sortu zenetik 3.200 neska-mutilengana iritsi den hezkuntza-programa berritzaile honetako parte-hartzaileek *Alberto Giacometti*, *Atzera begirakoa*, *Diana Thater* eta *Architecture Effects* erakusketak izan dituzte inspirazio-iturri.
 - *Artea ikasbide* programaren helburua da ikasleei eskola-curriculumeko gaiak ikasteko bideak eskaintzea, jokoaren eta praktika artistikoaren bitartez.

“Oso ongi pasatu nuen argazkiak ateratzen, batzuetan alderantzizko mundu bat sortzen delako... poliedroak egiten, 3D animazioarekin eta lantaldean ere oso ondo pasatu nuen. Kuboa egitea izan zen errazena, eta oktaedroa zailena. Orain etxean saiatzen naiz poliedroak sortzen. Arteak beti laguntzen dit beste gauza batzuk egiten”. “Gauza asko egin dugu Nerea Lekuona artistarekin. Askok ikasi dugu, baina gai bat interesatu zaigu bereziki: berdintasuna. Artearen bidez, denak berdina gaita eta eskubide berberak dauzkagula landu dugu. Zortekoak gara gure gelan eta eskolan beste kultura batzuk dauzkagulako”. Zirrara eta naturaltasun horrekin mintzatu dira Bilboko Deusto ikastetxeko eta Gasteizko Sansomendi ikastetxeko ikasle bana *Artea ikasbide* programatik igaro ostean. Programak 22. edizioa du aurtengoa.

Programari buru ematen dion erakusketak hasiera-hasieratik izan ditu BBKren babes oparoa (erakundeak bost urte beteko ditu Fundazio moduan) eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntza. Aurten erakusketa ekainaren 18tik irailaren 15era bitartean egongo da ikusgai Museoaren Hezkuntza gelan.

Iñaki Gracenea, Zaloa Ipiña, Nerea Lekuona, Ixone Sádaba, Karlos Martínez Bordoy, Manu Muniategiandikoetxea, Jorge Rubio, Ibon Sáenz de Olazagoitia eta Manu Uranga artistek ikasturte osoan zehar 20 saiotan banatutako tailerrak diseinatu eta dinamizatu dituzte Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza Sailarekin eta EAEko bederatzi ikastetxetako profesionalekin elkarlanean, eta esperientzia horietatik sormenez betetako hainbat proposamen atera dituzte: buztinezko ahoak, sudurrak eta belarriak;

antzinako tribu eta zibilizazioetan inspiratutako maskarak; animazio-bideoak; material birziklagarriekin egindako landare-eskulturrak; edo inoiz ikusi gabeko faunaz osatutako animalietagia.

Argazkigintza, pintura, eskultura edo performancea bezalako bitarteko artistikoen bidez neska-mutilei aurkikuntzak egiten, esperimentatzen, ikusten dutenaz hausnartzen, zalantza egiten eta ingurua ulertzen laguntzea da ekimen honen helburua.

“Niretzako luxua izan da horrelako aukera batez gozatu ahal izatea. Artea ikastetxera gerturatzeko esperientzia ona izan da, ikasleak ohituta dauden plastika eta eskulanetatik haratago eta, gainera, zientzia bezalako curriculum-ikasgaiekin lotuta. Oso positiboa izan da ikasgaiko edukiak jorratzeko ideia eta ikuskera berriez gozatu ahal izatea, eta, batez ere, eskolen monotonía apurtu ahal izatea”. Horrela deskribatu du San Ignacio ikastetxeko Mikel Garmendia irakasleak *Artea ikasbide* programan artista moduan izan duen lehen esperientzia.

Erakusketako atalak

Aurtengo *Artea ikasbide* erakusketa lau atal tematikotan dago antolatuta: **Letrak**, hizkuntzarekin, hiztegiarekin eta idazkerarekin lotura zuzena duten obrak jasotzen dituen; **Birziklapena eta kontsumoa**, gai horiei buruzko hausnarketa irudimentsuaren fruitu diren diziplina anitzetako pieza ezberdinak biltzen dituen; **Mapak eta arkitekturak**, inguru hurbilaren eta bestelako tokien aireko bistak, ibilbideak eta maketak jasotzen diren, besteak beste; eta, azkenik, **Argazkiak eta filmak**, paisaia eta haren protagonistengan egindako interbentzioak, *stop motion* animazioak, performanceak eta bestelako sorkuntzak biltzen dituen.

Bederatzi proiektu artistiko original, irudimentsu eta zirraragarri

Artea ikasbide erakusketa honetan parte hartu duten 209 “artista” gazteak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako bederatzi ikastetxetako ikasleak dira.

Bilboko Ángeles Custodios ikastetxeko 6. mailako ikasleek hizkuntzaren eta aniztasunaren arteko lotura aztertu dute, eta hizkuntza-aniztasuna aukera eta aberastasun gisa ikusi dute. Euskaraz hitz egiteko eta entzuteko gonbita egiten zuen Euskaraldia ariketa kolektiboa inspirazio hartuta, eta Jorge Rubio artistaren laguntzaz, buztinezko ahoak, sudurrak eta belarriak sortu dituzte. Pieza horiek paisaia egindako esku-hartze bilakatu ziren ikastetxearen inguruetako murrak, horma eta zuhaitzekin mimetizatuta.

Bilboko Deusto ikastetxeko 5. mailako neska-mutilek, Zaloa Ipiñaren laguntzaz, argazkiak atera zizkieten inguruan aurkitu zituzten matematikari: zenbakiak, lerro paraleloak, angeluak, bolumenak, forma geometrikoak, perspektibak, eta abar. Irudi horietatik abiatuz, paisaia matematikari berriak sortu zituzten collagea, papiroflexia eta animazioa bezalako teknikak erabilita.

Gasteizko Paula Montal ikastetxeko 4. mailako ikasleek elikadura osasuntsu eta jasangarriari buruzko sormenezko hausnarketa egin zuten, eta gogoeta horretatik abiatuta gertuko produktu osasungarriak salduko lituzkeen fikziozko elikadura-marka bat asmatu zuten. Ibon Sáenz de Olazagoitia artistaren laguntzaz, taldekideek adostasuna lortu zuten, modu demokratikoan egin ere, produktuak hautatzeko, horien izenak aukeratzeko, logotipoak eta etiketak diseinatzeko, paketatzea erabakitzeo, eta marka ezagutzera emateko publizitate-kanpaina prestatzeko.

Gasteizko San Ignacio ikastetxeko 2. mailako ikasleek ikuspegi artistikotik aztertu zituzten natura-zientziak, eta inoiz ikusi gabeko espeziez osatutako fauna asmatuaren bilduma ilustratua asmatu zuten. Neska-mutilek Museoa bisitatu zuten Karlos Martinez Bordoy artistaren gidaritzapean, eta bertan, Jeff Koons-en *Idi-bihotzak* obra jo zuten begiz. Hura inspirazio-iturritzat hartuta, landare-motibodun eskultura harrigarriak sortu zituzten.

Barakaldoko Munoa ikastetxeko 6. mailako neska-mutilek identitate pertsonala izan zuten langai; beren biografiak arakatu zituzten eta nor diren, zer gustatzen zaien, nolako tokian bizi diren eta nolako familia duten hausnartu zuten, besteak beste. Ikasturtean zehar bildu zituzten argazkiak, oharrak eta inpresioak erabilia mural handi bat egiten lagundu zien Ixone Sádaba artistak. Honela deskribatzen du artistak berak taldearekin izandako esperientzia: “Ikasturte honetan geure buruak begiratu ditugu, eta gure ingurunea aztertu dugu; eta prozesu horretan, gure ingurua deskubritzearekin batera, New Yorkera ere gerturatu gara! Geure buruak marraztu eta asmatu ditugu. Landa-koadernoak sortu ditugu eta, kamera analogikoen bitartez, bata bestea erretratatu dugu. Gure familiak eta gure ingurunea ere hartu ditugu argazkitan. Eta antzekotasunak eta desberdintasunak, biak ala biak gozatu ditugu”.

Donostiako San José ikastetxeko 5. eta 6. mailako ikasleak Iñaki Gracenea artistarekin etorri ziren Museora *Architecture Effects* erakusketara, eta ikusitakoari esker arkitekturak gizartearengan duen eraginaz gogoeta egin ahal izan zuten. Hiri ideala irudikatu zuten, haren profila sortu zuten hiri-sarea eta eraikin altuenak nabarmenduta, eta azkenik, arkitekturak kultura ezberdinak bateratzen dituen komunitatea ere barne hartzen duela ulertu zuten.

Bilboko Zorrotza ikastetxeko 4. mailako neska-mutilek ikasi zuten birziklatuz gero objektuek erabilera berriak izan ditzaketela. Manu Uranga artistak bultzatuta, soilak baina erabilera anitzekoak izan daitezkeen materialekin esperimentatu zuten, eta hala, collageak egin zituzten argazkiak eta oihalak baliatuta, eta paperez eta ehunez egindako bustoak ere sortu zituzten. Horretarako, etiketak irakurri behar izan zituzten, gauzak zerekin eginda dauden ulertu, eta material bakoitza nondik datorren jakin: zein den, adibidez, poliesterraren, artilearen edo kotoiaren jatorria. “Artista sentitu dira ikasleak, eta artearen aurrean modu irekiagoan sentitu dituzte beren buruak. Artearekiko beldurra galdu dute emaitzak lortzeko gai sentitu direlako. Artearekiko gertuko harremana eraiki dute jolasaren bitartez”; horiexek Arantza Ayala irakasleak programan izandako esperientzia azaltzeko erabilitako hitzak.

Gasteizko Sansomendi ikastetxeko 6. mailako ikasleek hizkuntza erabili zuten arte-sorkuntzarako erraminta gisa. Kartelen, iragarkien zein Interneten bidez iristen zaizkien mezuak aztertu zituzten, informazio horren

aurrean iritzi pertsonala garatzeko helburuz. Nerea Lekuona artistaren laguntzaz, taldeak bideo bat sortu zuen etiketak, hitzak eta mezu garrantzitsuak erabilita, eta gaur egun inguruan dituzten kulturen aniztasuna jasotzen duen mapa originala ere egin zuten taldekideek.

Lasarte-Oriako Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko 3. mailako neska-mutilek birziklapena eta kontsumo jasangarria landu zituzten ikuspuntu artistikotik abiatuta. Manu Muniategiandikoetxea artistak zuhaitzak kimatu ostean soberan geratutako adarrekin egitura original bat eraikitza animatu zituen ikasleak, eta marrazkiak, moldeak, beste artista batzuen lanak eta beste ikasle batzuek utzitako obrak eseki zituzten bertan. Era horretan, taldean lan egitea eta objektuak berrerabiltzea sustatu zuten.

Bilbo-New York elkartrukea

Barakaldoko Munoa ikastetxeko eta New Yorkeko Queens auzoko PS 144 ikastetxeko gela banatako ikasleek mezu elektronikoak bidali dizkiete elkarri sei astez. Ixone Sádaba eta Jeff Hopkins artisten laguntzaz garatu duten ekimenaren baitan, beren proiektu artistikoei buruzko informazioa trukatu dute testu-mezuen bidez eta euren sorkuntzen irudi, marrazki eta argazkien bitartez.

1999az geroztik, *Artea ikasbide* programak, kultura-elkartrukea garatzeko aukera eman die parte hartu duten eskola-ume, artista eta irakasleei, Euskal Autonomia Erkidegoko eta New Yorkeko Lehen Hezkuntzako ikastetxeen artean ematen den arte-hezkuntzaren bitartez. Elkartruke horrek artearen eremua bera gaintzen du, eskola-umeek kezka, gustuak eta jolasak ere partekatzen dituztelako, inguruko errealtateko beste aspektu batzuekin batera. Talde bakoitzak jakin-min bizia sentitu zuen beste taldearen inguruko ezaugarri bereizgarriak ezagutzeko, eta bi hirietako Guggenheim Museoak alderatzeko.

Hogeiabi urtez *Artea ikasbide*

Artea ikasbide programak 22 urte bete ditu. Urte horietan zehar, programak lehen mailako irakaskuntzako 3.200 eskola-ume baino gehiago eskola-curriculum indartzen lagundu du arte-jardueren bitartez, eta, aldi berean, haur horiei munduari begiratzeko sormenezko ikuskera pertsonala transmititu die, talde-lana, beste kultura batzuekiko bizikidetzaren edo ingurunearekiko errespetua bezalako balioak landuz.

1998tik, 3.011 ikasle, 30 artistak, Lehen Mailako Hezkuntzako hiru hizkuntza-ereduen 231 irakasle eta Euskal Autonomia Erkidego osoko 154 ikastetxe saiamenez lagundu diete Guggenheim Bilbao Museoko hezitzaileei *Artea ikasbide* programa gauzatzen.

la hogei bi urte igaro dira egitaraua Guggenheim Bilbao Museoan abian jarri zenetik, eta, oraindik ere, argi geratzen da arteak eskola curriculum sendotzen laguntzen duela. Heziketa-programa hau New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museoan ernatu zen. 1970. urtean, Natalie K. Lieberman mezenasak jarri zuen martxan, hiriko lehen mailako ikastetxe publikoetan arte-irakaskuntza kendu baitzuten.

Museoko entzuteko egitarauaren informazio orokorra eta *Artea ikasbide* erakusketako artelan batzuen azalpenak eskainiko ditu, beste erakusketetan egiten den bezala

Azaleko irudia:

Donostiako San José ikastetxeko ikasleek egindako obra

Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio Saila

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia www.guggenheim-bilbao.eus webgunean eskuragarri (prentsa eremua).

Prensa irudiak:

Artea Ikasbide

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Musoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoa-ren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 359 008, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.es

Bilboko Ángeles Custodios ikastetxeko ikasleak

Irakaslea: Esther Vilarino

Artista: Jorge Rubio



Bilboko Deusto ikastetxeko ikasleak

Irakasleak: Begoña Bergasa eta Eskarne Mardaras

Artista: Zaloa Ipiña



Gasteizko Paula Montal ikastetxeko ikasleak

Irakaslea: Inma Iñiguez de Ciriano

Artista: Ibon Sáenz de Olazagoitia



Gasteizko San Ignacio ikastetxeko ikasleak

Irakaslea: Mikel Garmendia

Artista: Karlos Martínez Bordoy



Barakaldoko Munoa ikastetxeko ikasleak

Idazlea: Eneritz Leniz

Artista: Ixone Sádaba



Donostiako San José ikastetxeko ikasleak
 Irakasleak: Karmele Mitxelena eta Lourdes González
 Artista: Iñaki Gracenea



Bilboko Zorroza ikastetxeko ikasleak
 Irakaslea: Arantza Ayala
 Artista: Manu Uranga



Gasteizko Sansomendi ikastetxeko ikasleak
 Irakasleak: Idurre Ayerbe eta Iñaki Larrañaga
 Artista: Nerea Lekuona



Lasarte-Oriako Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko ikasleak
 Irakaslea: Rebeka Medina
 Artista: Mana Muniategiandikoetxea

